

Lan-legepeko hezitzaileak eta irakasleak

N e g o z i a z i o a k

5. NEGOZIAZIO MAHAIA

2013 - 10 - 21

- **Gaia: Hezkuntza Laguntzako Espezialisten lanaldia**
 - **Urteko ordu-kopurua:** 1462 ordu
 - **Langileen egutegia:** erreferentziazko zentruarena. Honekin eztabaida luze egon zen, Administrazio aldetik zalantzak baitaude. Azkenean, dagoen bezala uzteko onartzen da.
 - **Asteko jardunaldia:** 37,5 ordukoa. Bilera honetan, orain arte adostuta dagoen hau, kolokan jartzen dute. Honen ondorioak lanpostuen areagotzea baitakar. Datuekin puntu hau eztabaidatzen jarraituko dugu.
 - **Koordinazio orduak:** Erredakzioa hobetzeko geratu zen.
 - **Bazkaltzeko denbora:** Administrazioak bazkaltzeko 45 minutu baino gehiago ematea ezinezkoa ikusten du.

Gainontzeko puntuak (barnetegietara joateagatiko konpentsazioa, egutegiak eta ordutegiak egiteko epea...) aztertu gabe geratzen dira, hurrengo bilera batean haiekin jarraitzeko asmoarekin.

- **Ibilaritzen arautzea:** Bileraren bukaeran Administrazioak bere proposamena luzatzen digu hau aztertzeko eta hurrengo bileran gai hau eztabaidatzen hasteko.
- **Hurrengo bilera:** Azaroaren 14an egiteko adostu bazen ere, Administrazioak 21era atzeratu du.

STEE-EILASen jarrera:

- Udako etenaldia pasata, urriak 21ean, kostata baina berriro ekin diogu gure lan-hitzarmenaren negoziazio prozesuari.
- Ekainean utzi genuen moduan jarraitzen du negoziazioak, puntu batzuk adostasun batera iristeko aukerarekin eta beste batzuk (dirua supostazen dutenak) administrazioaren partetik, negoziatioetatik kanpo uzteko nahiarekin.
- Gure ustez, asteko jardunaldiaren puntuak lehentasuna du. Horretan ez bada adostasunik lortzen, beste puntuak garrantzia galtzen dute. Horrela adierazi diogu Administrazioari.
- Gai honen eztabaida ez da bukatu, baina gero eta oztopo gehiago ikusten ditugu adostasun bat lortzeko.

ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	NAFARROA
Eulogio Serdán, 5. behea 01012 – Gasteiz Telf.: 945 14 1104 Fax: 945 14 43 02 Email: araba@stee-eilas.org	Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu) 48003 – Bilbo Telf.: 94 410 02 98 Fax: 94 410 13 60 Email: bizkaia@stee-eilas.org	Baso-txiki, 30-34 (atzekaldea) 20006 – Donostia Telf.: 943 46 60 00 Fax: 943 45 36 27 gipuzkoa@stee-eilas.org	Descalzos, 72 (Ionja) 31001 – Iruñea Telf.: 948 21 23 55 Fax: 948 27 00 48 nafarroa@stee-eilas.org